



EUSKARA
PLANAK
LANTEGIETAN

GIDA BAT

EUSKARAZ
LAN EGITEKO
ESKUBIDEAREN ALDE

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

SARRERAKOA	01
DISKURTSOA ETA KOMUNIKAZIO PLANA	02
NORK HARTU BEHAR DU EUSKARA PLANARI EKITEKO ERABAKIA?	03
DIAGNOSTIKOA: EGOERAREN AZTERKETA	03
HELBURUAK, EPEAK ETA BALIABIDEAK	05
EUSKARA TEKNIKARIAREN ZEREGINAK	10
HARRERA PROTOKOLOAK	11
ERANSKINA: DIRU-LAGUNTZA, EKIMENAK ETA TRESNAK	12
ERANSKINA: GLOSATEGI BAT	14



Sarrerakoa

Euskara, Euskal Herrian hizkuntza nagusia izatetik, zokoratuta (EAEn) edota desagertzeko arriskuan (Nafarroan eta Iparraldean) egotera eramanduen **ordezkapen prozesu antolatua** jasaten dugu duela mendeak, Espainia eta Frantziaren eskutik, kapitalismoaren eta neoliberalismoaren laguntzaz egun.

Lan munduan ere euskara hizkuntza nagusia izan da Euskal Herrian XX. mendera arte. Ordutik hona, debekuek, bazterketa sistematikoak eta lege arrotzek lantegi askotatik desagerrarazi dute gure hizkuntza.

JM Sanchez Carrión “Txepetx” berak esana da: “Ulertzekoa da hizkuntza-asimilazioak hain leku garrantzitsua izatea Boterearen politikan. Izan ere, herri batek bere hizkuntzari uko egiten dionean bakarrik esan daiteke uko egin diola bere iraganari, loturei, kulturari.”

Euskaraz lan egiteko eskubidea.

Lantoki gehienetan, erdaraz lan egiteko eskubidea da bermatuta dagoen bakarra eta langile euskaldunak, kasu gehienetan, erdaraz lan egitera behartuta daude. Euskal herritarrok bizitzaren esparru guztietan euskaraz bizitzeko eskubidea bermaturik izan behar dugu, erdaldun elebakarren pare behintzat, eta euskal sindikatu garen neurrian ELAk euskaraz lan egiteko eskubidea gauzatzea defendatu behar du. Jakin badakigu urte luzetako bazterketa ezingo dela bat-batean gainditu, baina Euskara Planak euskarri egokia izan daitezke bide horri arian-arian ekiteko.

Euskara berreskuratzea (euskararen komunitatea berregitea) premiazkoa dugu, onuragarria zaigu alde guztietatik begiratuta, eta erronka horretan lan mundua funtsezko eremua da. Alabaina, egun ez dago horretarako baldintzarik, ez lege-marko egokirik, ez gure aldeko botere-harremanik. Aitzitik, baldintza objektiboak erdaren oso aldekoak eta euskararen aurkakoak dira, hasteko eta behin euskaldun guztiok dakigulako gazteleraz edo frantsesez, halabeharrez, baina dagoeneko, inposatutako ordezkapen prozesuaren ondorioz, urrun gaudelako oraindik guztiok euskaraz jakin, edo ulertzetik sikiera.

Euskara Plana euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeko ezinbesteko tresna da.

Soilik prozesu antolatu, errealitatera egokitu, baliabidez egoki hornitu eta adostu batek ahalbidetuko du gure lantegietan euskararen erabilera arian-arian berreskuratzea.

Confebask eta CEN erakundeek bizkarra eman digute.

Saiatu gara enpresarien erakundeekin euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeko Euskara Planak abian jartzeko prozesu bat adosten, baina ez da posible izan. Uko egin diote. Hortaz, lantokiz lantoki jarraitu beharko dugu. ahalegina egiten. Horretarako, ELAk badu egun euskaratal bat gure ordezkariari behar duten laguntza eta aholkularitza emateko. Espero dugu hemen doakizuen gida labor honek, Euskara Planak zer diren ulertzen eta zuen lantokietan hedatzen lagungarri izango zaizkizuela.



Diskurtsoa eta komunikazio plana

Euskara Plana egiteko arrazoiak langile guztiei azaldu eta aldiro-aldiro lantzea funtsezkoa da. Langileen atxikipenik ezean enpresak inposatuko ditu Euskara Planaren mugak. Hitzarmen kolektibo baten negoziaketan bezala, Euskara Plan egokiak soilik lortuko ditugu langileak ondo antolatutako lantokietan.

Ardatz nagusia:

Langileen, bezeroen, eta oro har herritarren **euskara erabiltzeko eskubidea ziurtatzea eta bermatzea** (gaztelera erabiltzeko eskubidea bermatuta baitago).

Euskara Plana zertarako?

Euskararen erabilera ahalbidetzeko, langileei euskaraz jardun ahal izateko tresnak eta baldintzak emateko, denboran luze joko duen prozesua modu antolatuan eta mailakatuan aurrera eramateko.

Euskara Plana lantokietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko tresna da, erakundearen neurri eta beharretara egokitua. Euskara Planaren bitartez, euskararen erabilera areagotzeaz batera, hizkuntzen kudeaketa erakundearen kulturen edo sistematikan integratzea bilatzen da.

Ez dago Euskara Plan eredu bakarra. Lantoki bakoitzak, bere ezaugarrien (langileak, zuzendaritza, jarduna) eta kokatuta dagoen inguruaren ezaugarrien arabera Euskara Plana beharko du, bere neurrira. Adibide bat jartzearren, ez dute Euskara Plan berdina izango Gasteizko eta Azkoitiko Sidenorrek, esate baterako, zeinek berea baizik.

Komunikazio Plana

Euskara Plana ezagutarazi behar zaie lankide guztiei, euskaldun nahiz erdaldun izan, zergatiak, helburuak eta parte hartzeko aukerak zeintzuk diren azalduz, eta, aldiro-aldiro (urtean behin, adibidez) Planaren bilakaeraren berri eman behar zaie aurrez aurre.

Motibazioa etengabe landu behar da, **langileen atxikipena** funtsezkoa baita planak aurrera egingo badu.



Nork hartu behar du Euskara Planari ekiteko erabakia?

Gaur egun, Euskara Planaren negoziazioa ez da eskubide aitortua lantokietan, baina Hitzarmenean txertatu daiteke, Gipuzkoako Metalean edota Bizkaiko Erresidentzietan egin den bezala.

Lehen urratsa Hitzarmenean eskubide hori jasotzea izan daiteke, beraz. Hitzarmen bidez enpresek Euskara Planak negoziatzeko obligazioa ezarrita egon ez arren, langile batzordeak edo ELAren atal sindikalak Euskara Plana negoziatzeko eskaera egin dezake eta enpresak hura onartu. Hala ere, Euskara Plana izateko eskubidea hitzarmen bidez bermatuta izatea beti izango da egokiagoa.

Enpresak berak proposatzen ez badu, Enpresa komitean erabaki behar da lehenik enpresari proposatzea langile guztien hizkuntz eskubideak bermatzeko Euskararen Normalizatzeko Plan bat abiaraztea. Enpresarekin adostu behar da Plana jarraian, ezinbestean. Bestalde, Planak ahalik eta langile gehien onarpena jaso behar du.

Langileok Planaren Lidergoari heltzea garrantzitsua da, zuzendaritza lidergoa partekatuzera gonbidatu, baina ez utziz Euskara Planaren garapena soilik enpresaren eskuetan, areago jabetza-aldaketak edota ardura-aldaketak hain sarri gertatzen diren garaiotan.

Zuzendaritzarekin akordioetara heltzea da planaren garapenaren berme, hortaz, **Negoiazio Kolektiboan bezala**, langileon arteko elkartasunak eta ekimenak etorraziko du enpresa akordioetara.

Euskara Plana abiarazteko erabakia adostu ondok, lantokian euskararen erabileraren egoeraren diagnostia egiteari ekingo zaio, jarraian helburuak eta helburu horiek lortzeko ekintzak zehaztu, eta azkenik, inplementazioa eta ebaluazioa antolatu behar lirateke.



Diagnostikoa: egoeraren azterketa

Lantokiko hizkuntzen kudeaketaren diagnostikoa teknikari batek egitea komeni da. Euskara Planen garapenean espezializatutako pertsona eta erakundeak daude, eta horien kontrataziorako dirulaguntza publikoak.

Euskara teknikariak honakoak aztertu eta zehaztu behar ditu (eta teknikaririk ez balego, ELAren ordezkariak hurbilketa bat egin):

3.1. Hizkuntz gaitasunaren, kontratazio politikaren, erabilera-irizpideen eta prestakuntzaren azterketa

Arduradun eta langile guztien hizkuntz gaitasuna	Ulermen maila ahoz / idatziz Sormen maila ahoz / idatziz
Laneko prestakuntza saioak zein hizkuntzatan eskaintzen dira?	Erdaraz % Euskaraz %
Euskara ikasteko prestakuntza edota laguntzarik badago?	Ez / Bai (zehaztu)
Langile / zerbitzu kontratazioetan euskara aintzat hartzen da?	Ez / batzuetan / sarri / beti
Hizkuntza ofizialen erabilera irizpideak zehaztuta daude?	Bai / ez / alor batzuetan (zein?)

3.2. Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboaren azterketa

Hizkuntzen arteko botere harremanen (eta hauek eragindako erabilera-joeren) gaineko informazioa ere ematen digu hizkuntza paisaiak, hortaz, berebiziko garrantzia du euskaraz egoteak.

Errotulu handiek, informazio-guneek, apal, karpeta eta armairuetako errotulu txikiek, laneko agiriak eta jarraibideak, katalogoak, salneurriak eta abarrek osatzen dute hizkuntza paisaia.

Irudi korporatiboa da erronketako bat, kalitatearekin eta bikaintasunarekin oso lotuta, enpresa kokatuta dagoeneko gizartearekiko arduraren erakusleeta bat den neurrian.

Enpresaren webgunearen hizkuntzak?	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %
Enpresaren publizitatearen hizkuntzak?	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %
Errotulazio handia, txikia, jarraibideak, katalogoak?	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %
Enpresaren aurkezpenak, jardunaldiak, kanpainak...	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %

3.3. Barne-harremanen azterketa

Ahoz: bilerak, batzarrak, telefono bidezkoak, jardun informala...	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %
Atal sindikaleko, Komiteko, eta enpresarekiko bilerak	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %
Idatziz: oharra, jarraibideak, agiriak, dokumentazioa...	Euskaraz % Erdaraz % Euskaraz ere %
Langilekiko harrera protokoloetan euskara aintzat hartzen da?	Lanpostuaren baitan / Kasu guztietan / Inoiz ez

3.4. Kanpo-harremanen azterketa

Ahoz: Bezero, hornitzaile, herritar, administrazioarekiko...	Euskaraz %	Erdaraz %	Euskaraz ere %
Idatziz: Bezero, hornitzaile, herritar, administrazioarekiko	Euskaraz %	Erdaraz %	Euskaraz ere %

3.5. Software eta aplikazio informatikoen azterketa

Softwarea eta aplikazio informatikoak zein hizkuntzatan daude?	Euskaraz %	Erdaraz %	Euskaraz ere %
--	------------	-----------	----------------



IKUSI

<https://jakinbai.eus/autodiagnostikoa>



Helburuak, epeak eta baliabideak

Diagnostikoa oinarri, Euskara Batzordeak adostuko ditu:

1. Helburu estrategikoak (epe luzekoak).
2. Urteko helburuak eta ekintza plana.
3. Urteko eta epe luzeko helburuak neurtzeko adierazleak.

Urrats txikiak proposatuko dira, gauzagarriak, helburu zehatz eta epe motzean lorgarriak, epe luzeagokoen oinarri. Arian-arian euskararen erabilera hedatzeko, ezinbestekoa da ahalik eta langile gehienen inplikazioa, parte hartze zuzena eta eraginkorra: parte hartu / jabetu / aldaketa bultzatu.

Jarraian, enpresa pribatu eta publikoetarako aldarrikapenen katalogoa, tokian toki eta lantokiaren diagnostikoaren arabera moldatu beharrekoa.

4.1. Euskara-plana negoziatzeko konpromisoa (adibide bat):

Enpresan euskara-plan bat negoziatu beharko da, luzaezina den epean, akordio hau sinatzen denetik ____ hilabetetara. Horretarako, ... enpresa behartuta dago langileen ordezkariak informazioa ematera, eskatzen denetik 3 hilabeteko epean gehienez ere, enpresaren egoeraren eta beharren diagnostiko egokia egin ahal izateko euskararen erabilerari dagokionez, 3. atalean zehaztutakoari jarraiki.

4.2. Euskara Batzordea eratzeko konpromisoa

Diagnostikoa, Planaren garapena eta jarraipena egiteko Euskara Batzordea eratu beharko da, enpresa eta langileen ordezkarien artean paritarioa behar duena (langile eta enpresaren ordezkari kopuru eta ordezkapen maila bera). Ordezkaritza sindikalak edozein langile izendatu ahalko du Euskara Batzordeko kide, eta enpresak behar den ordu kreditua emango dio bileretarako nahiz Planaren jarraipen-lanak egiteko ere.

Zereginak, Euskara Planaren helburuen zehaztapena, jarraipena eta ekintza guztien koordinazioa. Gainera, zuzendaritzari planaren emaitzak aurkeztu eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak proposatuko dizkio EBk. hilean behin bilduko da. Batzordeak euskaraz jardungo du, edo euskaraz egiteko aukera bermatuko du behintzat.

4.3. Enpresak Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria lortzeko prozesua burutuko duelako konpromisoa

Enpresak konpromisoa hartuko du Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria lortzeko prozesua burutu eta behar diren baldintzak betetzeko.

4.4. Euskara teknikaria (eta aholkularitza) kontratatzea

Plana egiteko beharrezkoa izango da euskara teknikari bat eta, aukera balego, arlo horretan aditua den aholkularitza enpresa bat kontratatzea.

4.5. Euskara ikasteko laguntzak

Enpresak langileei euskara ikasteko behar diren baliabideak emango dizkie:

- Langileek beren lanerako behar dituzten euskara ezagutzak eskuratzeko behar diren baliabideak bermatuko ditu.
- Euskara ikasteko taldeak sortuko ditu lanorduetan.
- Euskara ikasteko erabilitako orduen liberazio osoak edo partzialak eta atsedenaldirik gabeko konpentsazioak eskainiko dira. Euskara ikasteko erabiltzen diren orduak benetako lan orduak izango dira ondorio guztietarako, eta ez diote inolako gasturik eragingo langileari.
- Baliabide nahikorik ez izateagatik euskara ikasteko egindako eskaera guztiei erantzun ezin bazaie, lehentasuna emango zaie zeregin eta iraupen jakineko kontratuak dituzten langileei.
- Euskara ikasten duten langileei ordutegi malgua aplikatuko zaie.

Neurri horiek guztiak eragindako langile bakoitzarekin adostu beharko dira, eta langileen ordezkariak neurri horiek adosteko bileretan parte hartuko dute.

4.6. Kontratazioak egiterakoan hizkuntza irizpidea kontuan hartzea

Kontratazioak egiterakoan, enpresak prestakuntza maila bera duten pertsonen aurrean, euskara dakitenak hautatuko dituzte. Era berean, euren ezaugarriengatik euskara jakin beharreko lanpostuak identifikatuko dira eta langile euskaldunek beteko dituzte lanpostu horiek.

4.7. Euskarazko lan prestakuntza eskaintzea

Enpresak bere langileei euskarazko lan-prestakuntza eskainiko die erdarazkoa eskaintzen den neurri berean, gutxienez.

4.8. Euskararen erabilera sustatzea

Enpresak ondokoak bermatuko ditu:

4.8.1 Euskaraz hitz egiten duten edo ulermen maila nahikoa duten langileak jendaurrean identifikatzea (ezinbestean jendaurreko lanpostuetan dihardutenak eta borondatez bestelakoak).

4.8.2 Lanari lotutako prozesuetan euskara teknikoa (prestakuntza, hiztegiak, inprimakiak eta gainerako materiala) eraginkortasunez hedatzea.

4.8.3 Lanerako baliabide guztietan (softwarea, prozedurak, dokumentazioa, etab.) euskaraz lan egiteko aukera.

4.8.4 Pertsona guztiek enpresa osoarekin harremanak euskaraz izateko aukera izatea.

4.8.5 Edozein enpresa kontratista edo azpikontratatistarekin harremanak euskaraz izatea.

4.8.6 Sindikatuekiko harremana oso-osorik euskaraz garatu ahal izatea.

4.9. Erakundearen irudi korporatiboa, hizkuntza-paisaia eta barne-informazioa

Enpresak bermatuko du:

4.9.1 Hizkuntza paisaia osatzen duten kartel eta elementu guztiak euskaraz egongo dira. Bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direnean, euskarari lehentasunezko tratamendu formala emango zaio.

4.9.2 Barne-dokumentazio guztia euskaraz egongo da (hitzarmen kolektiboa; lan-kontratuak; nominak; plantilla eta erakundeak bete beharreko atala; finikitoa; barne-araudia; barne-oharrak -zirkularrak, jakinarazpenak, bileren deialdiak; bileren gai-zerrendak; harrera-planak; txekeak; etab.).

Produktuen etiketak, produktu eta zerbitzuen **katalogoak** eta berariazko **markako iragarki orokorrak**:

- Entitateak sortzen baditu, euskaraz egon behar dute.
- Kanpotik jasotzen badira eta euskaraz ez badaude, hornitzaileei euskaraz bidaltzeko eskatuko zaie.
- Makinen errotulazioa eta segurtasun errotuluak ere euskaraz egongo dira. Hornitzaileek bermatu egin behar dute aukera hori; bestela, erakundeak berak jarriko ditu euskaraz.

4.10. Softwarea eta aplikazio informatikoak euskaratu arian-arian

Neurriak, epeak eta adierazleak (programa eta aplikazioen hizkuntzak) zehaztu.

4.11. Bileren maiztasuna eta ebaluazioak

Hilean behin bilduko da Euskara Batzordea Planaren jarraipen orokorra egiteko.

Sei hilabetero Enpresa Komitean aztertuko da Euskara Planaren bilakaera.

Urtean behin urteko ebaluazioa aurkeztuko da bertan.

Bost urterik behin, ebaluazio orokorra egin eta hurrengo epealdirako plana zehaztuko da.

4.12. Herri-administrazioetan, hizkuntza-eskakizunen trantsiziorako neurriak (enpresa pribatuetan ere, honako aldarrikapen hauek erabil daitezke irizpide gisa)

4.12.1 III.Hizkuntz Eskakizuna (3.HE) eskatuko da, gutxienez, zuzendaritza lanpostuak betetzeko.

4.12.2 Langileek beren lana euskaraz egin ahal izateko behar dituzten ezagutzak eskuratzea, gehienez ere 15 urteko epean. Horretarako, behar diren baliabideak eskainiko dira, egungo langile finko eta behin-behineko langileek dagokien euskara-maila izan dezaten ezarritako epean.

4.12.3 Langile berri guztiek dagokien lanpostuaren hizkuntza maila izatea.

4.12.4 Hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiek eskatutako gutxieneko hizkuntza-maila ez badute, administrazio kontratatzaileak euskalduntze-ibilbide pertsonalizuatuak ezarri beharko ditu, gehienez ere _____ urteko epean euskara-maila hori lortuko dela bermatzeko.

4.12.5 Derrigortasun-Datak ezartzea hurrengo --- urteetan erretiroa dela-eta hutsik geratuko diren lanpostuetan.

4.12.6 Langileen mugikortasun-prozesu eta sustapen guztietan dagokion hizkuntza-eskakizuna eskatzea.

Enplegu publiko eskaintza, mugikortasun eta sustapen prozesuetan, aurrez ezarritako arauetako salbuespenek irizpide hauei jarraituko liekete:

- Langileek administrazio horretan lehenago lan egindako denborari.
- Langile horien adinari (administrazio horretan lehenago ere lan egin badute).

4.12.7 Behin lanpostua lortuta, Administrazioak bitartekoak eskainiko ditu euskara --- urteko epean ikasteko, gutxienez ulermen-maila lor dezaten.

4.12.8 Lan eskaintza publikoetako gaitegi guztiak euskaraz eskainiko dira, testuen kalitatea bermatuz.

4.12.9 Lan Eskaintza Publikoetan, merezimendu gisa baloratuko da lanpostuari ezarritako gutxienerako euskara-maila baino handiagoa egiaztatzea.

Edozein zerbitzu euskaraz ematea, neurri egokiak ezarriz, arestian aipatutako neurriak benetan ezarri arte, administrazio prozesu guztiak euskaraz oso-osorik egin ahal izateko.

Administrazio publikoetan. ondokoak bermatu beharko dira:

- Euskararen erabilera arautzea.
- Langileen euskarazko prestakuntza, aurretik euskara lan hizkuntza gisa erabili ez den esparruetan ere
- Txostenak euskaraz denen eskuera hasieratik.
- Nahi duten langile guztiak txostenak euskaraz egin ahal izatea, beharrezkoa denean gaztelaniara itzuliko direlarik.
- Bileretarako hizkuntza irizpideak ezartzea, euskaldunek euskaraz parte hartu ahal izan dezaten, eta aldi bereko itzulpen-zerbitzua ematea behar dutenei.
- Euskararen erabilera saritzea, batez ere jendea hartzeko lanpostuetan, bai eta beteko den lanpostuak eskatzen duena baino hizkuntza maila handiagoa duen langile orori ere.

Sari edo aitortpen hori honela gauzatuko da:

Karrera profesionalaren bidez (aukera dagoen eremuetan).

Pizgarri ekonomiko espezifiko baten bidez (karrera profesionala garatu gabe dagoen eremuetan).



Euskara Teknikariaren zereginak

Garrantzitsua da enpresak euskaraz, honen trataera eta normalizazioaz arduratuko den pertsona bat aukeratzea edo kontratatzea. Honen egitekoak hurrengoak lirateke:

5.1. Lantegian euskararen erabileraren eta egoeraren diagnostikoa egin

5.2. Koordinazio eta kudeaketa lanak

- Euskara Batzordearen koordinazioa eta dinamizazioa.
- Euskara ikasten / hobetzen ari diren langileen jarraipena.
- Dokumentazioa kudeatzea.
- Urtean birritan Planaren ebaluazioa egin (adierazleen bitartez), memoria landu eta Euskara Batzordeari aurkeztu. Urteko ebaluazioa eta bost urtekoa plantilla osoari ere aurkeztu.

5.3. Lanpostuko laguntzak

- Testuak sortzen eta zuzentzen langileei laguntza eman.
- Terminologia-zerrendak osatu.
- Itzultzaile automatikoaren erabilpenean trebatu langileak.
- Oro har, euskaraz lan egiteko tresnak eta baliabideak langileen eskura jarri.

5.4. Euskara Batzordearen jarduna dinamizatu

- Euskara Batzordearen bilerak antolatu (gai-zerrenda, dokumentazioa, akta...) hilean behin.
- Saiok antolatu eta gidatu, jarduna zaindu eta emaitzak neurtu. Parte hartzea sustatu.
- Beharrezkoak diren baliabideak jarri batzordekideen eta lantaldeen eskura.

5.5. Dirulaguntzak eskuratzeko lanetan lagundu (deialdien jarraipenetik hasita)

5.6. Komunikazio planaren eta motibazioaren lanketa

5.7. Euskara Planaren eta urteko planen proposamena egin Euskara Batzordeari

5.8. Adierazle-sistema diseinatu eta jarraipena egin



Harrera protokoloak

Harrera-unea da, langile berriak enpresarekin, batetik, eta ELAren ordezkariekin, bestetik, izango duen lehen harreman ofiziala. Oso garrantzitsua da geronek, ELAk, harrera egokia eskaintzea eta Euskara Planaren nondik norakoak azaltzea lankide berriei.

6.1. Enpresak egin beharreko harrera

Kontratazio berrietan, lanpostuaren arabera, ardua horretarako beharrezko hizkuntza gaitasunak (irakurtzeko, idazteko, ahoz jarduteko) zehaztu. Lan-deialdietan, beharrezko baldintzen edo baloratu direnen artean jasoko dira.

Zehaztutako gaitasun horiek betetzen ez dituztenek, gaitasunok eskuratzeko izango dituzten betebeharrak eta laguntzak (epeak, dedikazioa, kostuak...) zehaztuko dira.

6.2. ELAren ordezkariak egin beharreko harrera

Langile berriei lehen eguneko harrera eskainiko die gure atal sindikalak, enpresaren nondik norakoak azalduz, baita hizkuntzen kudeaketari buruzkoak, bereziki euskarari dagozkionak ere.

Lantokia kokatuta dagoen herrikoak / eskualdekoak ez badira, tokian tokiko ezaugarri soziolinguistikoen berri ere emango diegu.

Ahozko azalpenez gain, Euskara Planaren azalpena ere eskainiko diegu langile berriei. Euskara Planak nola eragiten dien eta bertan parte hartzeko aukeren berri emango zaie, euskara ikasteko enpresak eskaintzen dituen aukeren eta laguntzen berri, etab.

Hasi eta aste batzuetara, hizkuntzen kudeaketaren aldetik gorabeherarik edo zalantzarik izan duten galdetuko zaie langileoi, eta aurrera begira, hobetzeko neurriak eta jarraipena nola egingo den zehaztuko da.

Harrera egitean langile euskaldunak euskaraz aurkeztea garrantzitsua da.



Eranskina: Dirulaguntzak, ziurtagiriak, ekimenak eta tresnak

DIRULAGUNTZAK

LanHitz deialdia EAEko alor pribatuko lantokietan euskararen erabilera sustatzeko.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/lanhitz_deialdia/eu_def/Lanhitz-Agindua-2023.pdf

EAEko Udalen eta FFAAen dirulaguntzak

Nafarroako gobernuaren dirulaguntzak

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/nafarroako-foru-komunitatean-2023an-euskararen-erabilera-eta-presentzia-eremu-sozioekonomikoan-sustatzeko-laguntzak>

Lanabes programa: Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatu eta handitzeko.

<https://euskaraba.eus/lanabes/eu/zer-da-lanabes/>

Baztango udala, eta Bortzirietako, Iparraldeko eta Sakanako Mankomunitateen dirulaguntzak.

<https://www.baztan.eus/hizkuntza-paisaia-euskaratzeko-dirulaguntza/>

<https://bortziriak.eus/dirulaguntza/1080/>

<https://www.iparmank.eus/eu/bai-euskarari-ziurtagiria-dutenentzako-dirulaguntza>

Landue: Durangaldeko eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko ekimena.

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/76109-durangaldeko-enpresa-eta-prestakuntza-zentrok-eremu-sozioekonomikoan-euskara-sustatzeko-landue-proiektura-atxikitze-konpromisoa-sinatu-dute?track=1>

Eusgara: Arratiako mankomunikatetak eremu sozioekonomikoan euskara sustatzeko ekimena.

<https://www.errota.eus/portfolio/eusgara/>

ZIURTAGIRIAK

Bikain ziurtagiria: euskararen kalitate-ziurtagiria lortzeko kanpo-ebaluazioa.

<https://www.euskadi.eus/bikain-ziurtagiria-eskaera/web01-tramite/eu/>

Bai euskarari ziurtagiria: euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatu, aitortu eta pausoak ematen laguntzen dituen ziurtagiria da.

<https://www.baieuskarari.eus/eu/proiektuak/ziurtagiria>

EKIMENAK ETA BALIABIDEAK

LH Duala Euskaraz.eta LH Duala euskaraz egiten den lantokien gida

<https://lhdualeuskaraz.eus/>

Laneki Lanbide Heziketako materialak euskaratuta eta Interneten formatu elektronikoan.

<https://www.ikaslangipuzkoa.eus/eu/proiektuak/ikaslan-1/laneki>

Lanpres gida enpresa-egonaldiak euskaraz.

<https://lhdualeuskaraz.eus/wp-content/uploads/2021/06/LANPRES-GIDA-EUS-ES.pdf>

Heziraul Lan prestakuntza eta Orientabidea

<https://heziraul.eus/>

Lanbide Heziketarako euskarazko materialak

<https://jakinbai.eus/>

Indeus

<https://indeus.spri.eus/eu>

Enpresa industrialei euskarazko produktu eta zerbitzuak lortzen laguntzeko plataforma.

Agiri ereduak bankua

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/agiriereduak_bankua/eu_agiri_er/agiri_ereduak_bankua.html

<https://badalab.eus/>

Itzultzaile neuronalak

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>

Aldibereko itzulpenak aplikazioak

https://www.youtube.com/watch?v=wLst-FtpbdM&ab_channel=jakinbai.eus

Lanbide Heziketako Hiztegia

<https://hiztegia.jakinbai.eus/>

Euskaragiletu egitaraua

Batz, Fagor, Cikautxo, Goizper group, IMH, Elay, Irizar, Orkli, Danobat, Eika, Elkar, Mondragon... Euskararen normalizazioan aitzindari diren enpresen eskarmentua ezagutzeko.

<https://baieuskarari.eus/eu/euskaragileak/ekimenak-eta-ereduak/beste-enpresak>

Euskara Planetarako Aholkularitza

Ahize-AEK: <https://www.aek.eus/eu/zerbitzuak/ahize>

Artez: <https://artez.eus/>

Elhuyar: <https://www.elhuyar.eus/eu>

Emun: <https://www.emun.eus/>

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak (IVAP)

<https://www.ivap.euskadi.eus/hizkuntza-irizpideak-ivap/z16-a2eusk/eu/>

Hizkuntzen kudeaketa aurreratua (Eusko Jaurlaritza)

<https://www.euskadi.eus/kudeaketa-aurreratua-eta-hizkuntzen-kudeaketa/web01-a2plana/eu/>

CAFeko hizkuntza politika orokorra

http://www.basauri.net/sites/www.basauri.net/files/elkarteetan_euskararen_erabilera_hizkuntza_irizpideak.pdf

Erreferentzia Marko Estandarra

https://web.archive.org/web/20120204114713/http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1290007125



Eranskina: Glosategi bat

AMIA analisia (Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahulezia hitzez osatutako akronimoa). Enpresaren estrategiak erabakitzeko tresna bat da, Euskara Planetan ere erabilgarria.

Bai Euskarari Elkarte eta Ziurtagiria

<https://www.baieuskarari.eus/eu>

Enpresak, saltokiak eta bestelako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatzen du. Entitate baten hizkuntza egoera ziurtatzen du.

Bikain ziurtagiria Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak ematen duena. Ziurtagiri hau kanpo ebaluazio baten ondorioz lortzen da.

Ekintza Plana Planifikazio agiri estrategikoa da. Adostutako ekintzak biltzen ditu, ildo estrategiko nagusietan txertatuta. Urteko plana / Plan estrategikoa.

Elebide

<https://www.euskadi.eus/elebide-hizkuntza-eskubideak-bermatzeko-zerbitzua/web01-a3elebze/eu>

Hizkuntza eskubideak “bermatzeko” zerbitzua (Eusko Jaurlaritza).

Erreferentzia Marko Estandarra (EME)

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/zer_da_bikain/eu_def/adjuntos/EME_eu.pdf

Laguntza koadro bat da, edozein erakunderen ohiko jardun eremuak irudikatzen dituena, euskara non eta nola erabili erakusteko. erakundean hizkuntzaren presentzia eta erabilera (zerbitzuari eta lan-hizkuntzari dagokienez) zertan gauzatu ohi den adierazten du modu eskematiko eta ordenatuan.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_marko_orokorra_2016/eu_def/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana\(ESEP\).pdf%22](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_marko_orokorra_2016/eu_def/adjuntos/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana(ESEP).pdf%22)

2012/2022ko hamarkadarako hizkuntza politikaren neurri-proposamena.

Euskaraldia

<https://euskaraldia.eus/>

Gizarte erantzukizun korporatiboa (GEK)

Erakunde bakoitzak bere gizarte eta ingurumenarekiko duen ardura da.

Helburu estrategikoa

Entitate batek urtebetetik gorako epean azken helburu jakin bat lortzeko bidean proposatzen duen xedea.

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

<http://behatokia.eus/EU/>

Hizkuntza-eskubideen urraketei jarraipena egiteko tresna.

Hizkuntza irizpideak

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/criterios_linguisticos/eu_def/adjuntos/HIZKUNTZA-IRIZPIDIAK_EUS-Web.pdf

Entitate batek bere jardunean hizkuntza ofizialen erabileraz ezartzen duen erabaki multzoa. Enpresaren jarduneko alor guztietan hizkuntzak erabiltzeko jarraituko diren irizpideak.

Hizkuntza paisaia

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurklaritza/contenidos/informacion/artik22_1_cenoz_08_03/eu_cenoz/artik22_1_cenoz_08_03.html

Agerian dauden testu, kartel eta bestelako adierazpen linguistikoek osatzen dute. Hizkuntzen arteko botere harremanen inguruko informazioa eta zantzuak ere ematen ditu.

Hizkuntzen kudeaketa. Euskara eta lantokian erabiltzen ditugun gainontzeko hizkuntzak non, nola eta zertarako erabiliko ditugun erabakitzea (helburuak, baliabideak, irizpideak, pertsonak...).

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko legedia eta kontratazio irizpideak.123/2008 Dekretua:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2008/07/01/123/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

Praktika ona

Emaitza onez burutu den esperientzia edo esku hartzea da. Eraginkorra eta erabilgarria da testuinguru jakin batean. Eguneroko lanean sortzen diren arazoei eta zailtasunei aurre egiten eta kudeatzen laguntzen du.

Lan hizkuntza

Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan bertan erabiltzen den hizkuntza.

Zerbitzu hizkuntza

Bezeroarekin ahozko zein idatzizko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.

Zehar-lerrotasuna

Espektro zabaleko gaitasunak edo ezaugarriak adierazteko erabiltzen da. Zeharkako gaitasunaren adibideak dira, besteak beste, diagnostikatzeko gaitasuna, erlazionatzekoa, arazoak konpontzekoa, erabakiak hartzekoa, komunikatzekoa, lana antolatzekoa, denbora kudeatzekoa, eta abar.

benetan garrantzitsuak diren gauzak

 Aktibatu Lortu Zaindu

ELA
EUSKAL SINDIKATUA